

# HERRI KONTAKIZUNAK LAPURDI, BAXE NAFARROA ETA ZUBEROAN: BILKETA, SAILKAPENA ETA IRRIAREN ADIERAZPENAREN AZTERKETA

**Tesiaren egilea:** Maialen Moreno Zubeldia

**Unibertsitatea:** Deustuko Unibertsitatea

**Saila:** Euskal Filologia

**Tesi-zuzendaria:** Xarles Bidegain

**Tesiaren laburpena:**

Tesi honen oinarria Ipar Euskal Herrian (Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoa) euskaraz egindako ahozko literaturako kontakizunen bilketa-lana da. Elkarrizketatu beharreko herritarrak aukeratu eta horien memorietatik ateratako ixtorioak jaso eta transkribatu dira. Kontakizun horiek aztertu eta sailkatzean, zati handi bat irri-ixtorioek osatzen zutela konturatuta, irri-ixtorio horien ezaugarrietan sakondu da: egitura, gaiak, beste hizkuntza batzuetan horiei buruz egindako azterketak... Irri-ixtorioez gain, leiendak, ipuin miresgarriak, txisteak... ere jaso dira.

Ahozko literaturako beste genero batzuen aldean, irri-ixtorioak gutxiago aztertu dira. Euskal arloan jaso diren batzuk bestelako kontakizun batzuekin tartekatuta (R. M<sup>a</sup> Azkue, Jean Barbier...) joan dira, baina ez da horien inguruko gogoeta handirik egin. Orain arteko biltzaileek ez dute sexu gaiko kontakizun askorik jaso. Txomin Peillen izan daiteke salbuespena.

Horietako zenbait ixtorio tradiziozkoak direla frogatu nahi izan da. Badira Espainian Urrezko Mendeak direlakoetan (XVI.-XVII. mendeak) ezagunak ziren irri-ixtorioak ere. Poggio Bracciolini italiar humanistak, esaterako, gure bilduman jasotzen diren kontakizun batzuk ere jaso zituen *Facetiarum liber* liburuan. Gaztelaniazko bilduma modernoetan ere, gure kontakizunen barianteak aurkitu ditugu.

Gure corpuseko ixtorioetan islatzen den irri modua ere arakatu nahi izan dugu: Erdi Aroan nagusi ziren zenbait irri-gaietatik hasita, XX. mendearen hasieraraino, Bergson-ek eta Freud-ek komikotasunaren eta txistearen baliabideen inguruan egindako gogoetak aztertu ditugu. Era berean, ikusiko dugu zenbait gai errepikatu egiten direla kontakizun horietan (apaizak irrigarri uztea, emakumeen argitasuna beren senarrak engainatzerakoan...) eta gai horien zergatiaz eta izan dezaketen jatorriaz literaturan egin diren hipotesiak jaso dira.